



BARREN

TOKIKOM

Ukrainara laguntzaz beteta



*OSASUN EGOERA DELA-ETA PROGRAMAZIO HONEK ALDIKETAZ IZAN DITZAKE EDO BERTAN BEHERA GERATU DAITEKE

UDABERRIKO OPORRALDIA 2022



HH5-LH1

GURE MENDIETAKO SEKRETOAK EZAGUTZEKO IRTEERA

Apirilak 13
10:00 - 13:00
Kuota 9 € (bazkideek, 8 €)
Plaza mugatuak



AZPEITIRA IRTEERA

Apirilak 19
09:30 - 16:30
Kuota 21 € (bazkideek, 19 €)
Plaza mugatuak



LH2-LH3

LIZAGASARRERA IRTEERA

Apirilak 12
16:00 - 19:00
Kuota 9 € (bazkideek, 8 €)
Plaza mugatuak



EKAINBERRIKO KOBETARA IRTEERA

Apirilak 20
10:00 - 17:00
Kuota 21 € (bazkideek, 19 €)
Plaza mugatuak



LH4-6

LASTURREN EGONALDIA

Apirilak 21-22
Apirilak 21, 9:00etan irteera - Apirilak 22, 17:00etan buelta
Kuota 42 € (bazkideek, 38 €)
Plaza mugatuak



IZEN-EMATEA

Martxoaren 4tik martxoaren 18ra

- On line izena emateko QR honen bidez
- www.elgoibarkoizarra.eus
- Presentzial Elgoibarko Ludotekan eta Elgoibarko Izarran



Plaza mugatuak

UDALAREN DIRULAGUNTZAK

Informazioa Udalean
943741050 (gazteria)
gazteria@elgoibar.eus

INFORMAZIO GEHIAGO

Elgoibarko Izarra
Aita Agirre Kulturgunea 3, 3. ezk
943 74 17 46
www.elgoibarkoizarra.eus
atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.eus

Udal Ludoteka
Gabriel Kurutzelaegi, 6
943 74 88 83 /
656740793
ludoteka@elgoibar@gmail.com



EDURNE IZAGIRRE

Psikologoa



Neure legea

ezezkoa dela azpimarratzera pasa behar izan dugu erlazio intimoei dago-kienean. Honek ematen dit zer pentsa-tua: zein jarrera edo jokaera izendatu daitekeen eraso modura, kode penalak definitu behar du?

Kanpotik ezartzen den legea arrotza egiten zaigu eta lehen inpulsoa erresis-tentzia izan daiteke, norberaren norta-suna finkatu nahian; hauxe litzateke nerabezaroaren definizioa. Azken bi ur-teek ere bizipen hori laga digutelakoan nago, norbaitek nonbait erabakitako arauak bete beharrean ikusi gara, zen-tzurik topatzeke, eta besteek ezarritakoa izan denez, ez dugu ikasi norberaren egoera eta inguruaren arabera babes neurriak ezartzen. Honela, arriskurik ga-

beko jendea gainbabesturik ikus gene-zake, beldurrak jota, eta benetako arris-kuan zeudenak zaintzen ez dugu ikasi.

Arau edo helburu bat beste norbaitek finkatzen digunean, komeni bazaigu jo-lastuko dugu betetzera, onuragarri ikus-ten dugulako beste hori kontent mantentzea edo zigorra ekiditea; baina baloreak barrutik ernatu behar dira, nor-bere esperientzia eta sentipenetatik. "Besteei ez egin zeuri egitea gustatzen ez zaizuna". Zenbat aldiz entzun ote dut esaldia! Baina zer gustatzen zaidan eta zer ez, neronek sentiitzeko eta adieraz-teko eskubidea izan behar dut lehenik, eta honela soilik sor nezake neure jakitu-ria propioa, neure legea, bizitzan prak-tikan jarriko dudana.

Legez beteriko gizartean bizi gara, baina, pentsatu duzue inoiz zergaitik ditugun gero eta arau zehatzagoak edo zergaitik behar dugun ondo eta gaizki dagoenaren inguruan arautuko gaituen definizio ofiziala? Gaizki dago-ena definitzean, hor definitua ez da-goen guztia ondo dagoela ulertzen duenik badago; delitua ez dena egin daitekeela, alegia. Ezetza onartzeko kanpainatik, baiezkoa ez den guztia

"Zein jarrera edo jokaera izendatu daitekeen eraso modura, kode penalak definitu behar du?"



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euskararen Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuittzak ataletan adierazitako erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enertzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► IOSU ARRAIZI ERANTZUNEZ

Zergatik dio zirimiria, lehortea esan behar lukeenean? Debabarreneko Mankomunitateko presidente Iosu Arraizen adierazpenen arabera, 2021ean Debabarreneko eskualdea %55era iritsi zen gaikako bilketan; beraz, ezarritako helburuak bete ditugula ondorioztatu du: 2020rako ezarrita zegoen gaika %40 batzea, hori gainditu egiten dugu. 2025erako %50a dago ezarrita. Hori ere bete dugu.

Aurretik esandakoa baliagarria izan daiteke Mankomunitatearentzat, baina ez Elgoibarrentzat. Elgoibarko Udalak (bera alkateordea da), 2016. urterako %60ra iristea zuen helburu. 2014. urtean, EAJ-PNVk publikoki adierazi zuen datuek bide onetik gindoazela erakusten zutela eta 2016rako aurreikusten den %60ko helburua lortzea posible da. Bestalde, 2016an, EAJ, PSE-EE eta EH Bildu akordio batera iritsi ginen, eta, horren arabera, Udalak konpromisoa hartu zuen %60ko helburura ez bagenuen lortzen beharrezko ziren neurri zuzentzaileak hartuko zirela. Egia esan, sei urteko atzerapenarekin goaz, eta Udalaren jar-

duerarik eza benetan harrigarria da.

Halaber, Josu Arraizek adierazi du gaikako bilketaren tasak gora egin duela *sisteman berrikuntzak sartu izan direnean*. Eta datuek erakusten dute baieztapen zuzena dela: 2012an gaikako bilketa-sistema berri bat aplikatu ondoren, 2017rako gaikako bilketaren emaitzak bikoiztea lortu genuen, 2012ko %24tik %50era pasatuz, baina une honetan ia geldirik gaude. Lau urteren ondoren, %53an gaude, eta zehazki 2021eko emaitzak 2020koak baino okerragoak izan dira. Beste datu argigarri bat: 2017ra arte Elgoibarko datuak Debabarreneko batez bestekoak baino hobeak ziren, harrezkero, beti izan dira okerragoak.

Bilakaera hori ikusita, zer egin du Udalak? Ezer ez. Argi dago, Udalak ez baditu behar diren neurri zuzentzaileak bultzatzen sistemak funtziona dezan, 2016an formalki hitzeman genuen bezala, emaitzak ez direla hobetuko. Baina zer espero dezakegu Udal honengandik, elkarizketa berean Iosu Arraizek aurreko baieztapenari muzin egiten diotenean eta *sisteman baino, eragin behar*

dugula ohituretan esaten duenean. Pilota herritarren teiltuan jartzeko eta norberaren arduetatik libratzeko modu polita.

Eta ez, hau ez da *poliki-poliki bustitzen doan zirimiria bezalakoa*, Iosuk dioen bezala. Honek antz handiagoa du Francoren garaiko *pertinaz sequía* delakoarekin.

EH Bildu

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraok, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleaz datorren eskutitzik argitaratuko.



I. URTEURRENA

Jesus Maria Landa Aguirregomezcorta

2021eko otsailaren 23an hil zen, 66 urte zituela. Haren oroimenez

I. urteurrenako meza izango da, zapatuan, martxoaren 5ean, 17:00etan, Altolako Joan Bataiatzailearen parrokian.

Joango zaretenoi alde aurretik eskerrak.



I. URTEURRENA

Ana Maria Azpiazu Unamunzaga

2021eko martxoaren 7an hil zen, 72 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurrenako meza izango da, domekan, martxoaren 6an, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.

Joango zaretenoi alde aurretik eskerrak.



Barakaldoko eta Tolosako sexu erasoak salatu dituzte



Domekan Barakaldon eta astelehenean Tolosan emakume banak jasan zituzten sexu erasoak, eta bi gertakari horiek salatzeko elkarretaratzea egin zuten martitzenean Kalegoen plazan, Lila Elgoibarko Emakumeen Etxetik egin zuten deialdiari erantzunez, *Emakumeenganako indarkeriarik ez!* lelopean. Ordu laurdeneko elkarretaratze isila izan zen, eta txaloka amaitu zuten protesta.

'Dolmenen Ibilbidea' bultzatzeko hitzarmena berritu dute beste bi urterako



Elgoibar, Bergara eta Sorluzeko Udalek, Debemen (Debabarreneko Landa Garapenerako Elkarte) eta Debegesak (Debabarreneko Garapen Ekonomikorako Sozietatea) *Dolmenen Ibilbidea* kudeatu eta garatzeko hitzarmena berritu dute 2022 eta 2023 urteetarako. Sustatzaileek gogora ekarri dutenez, proiektu honen helburu nagusia gune honen interes kultural eta naturala aprobetxatzea da. Debegesak kudeatzen du proiektua, eta hiru Udalek urtean zenbateko bat jartzen dute hitzarmen honetan jasotako lankidetzaren ondorioz sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko. 2022. eta 2023. urteetan, 7.000 euroko zenbatekoa ezarri dute Udal eta urte bakoitzeko. Bergarako Udalaren kasuan, Debegesako kide ez denez, eta 2022rako eta 2023rako teknikarien dedikazio-orduetan bere ekarpena gauzatu ezin duenez, urteko 2.000 euroko ekarpen ekonomikoa egingo du.

Pentsionisten Mugimenduak ordutegi berriak iragarri ditu mobilizazioetarako

Gaugeroa pentsionisten taldeak batzarra egin du, eta besteak beste, mobilizazioen ordutegiak aldatu dituzte. Martxoaren 7ko elkarretaratzea 12:00etan egingo dute, Kalegoen plazan. Hilaren 21ean, berriz, manifestazioa egingo dute, 12:00etatik aurrera, Kalegoen plazan hasita. 24/7 plataformari dagokionez, bestalde, elkarretaratzea egingo dute martxoaren 30ean, 12:00etan, anbulatorio aurrean. Herritarrak deitu dituzte mobilizazioetan parte hartzera.

Euskal Herriko mus txapelketa bihar, Tantan

Martxan da aurtengo Euskal Herriko mus txapelketa, eta Elgoibarko kanporaketa bihar jokatu dute, Tantaka tabernan, 16:00etatik aurrera. Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu parte hartzeko. Gipuzkoako finala martxoaren 25eko asteburuan jokatu dute Seguran, eta final handia apirilaren 9an izango da, Baigorriin. Bestalde, pandemiagatik bertan behera geratu zen 2020ko finala, eta iaz ez zen txapelketarik jokatu. Final hura, apirilaren 2an jokatu dute, Leitzan.

Odol-ateratzea gaur, Mendaron

17:00etan hasita, odol-ateratzeak egingo dituzte gaur Mendaron, Ikastolan. Arduradunek eskatu dute aurrez txanda hartzeko, 747 440 060 telefonora deituta. Babes neurri guztiak hartuko dituztela ziurtatu dute.

Adikzioen prebentziorako bigarren plana jarri du martxan Udalak

Elgoibarko Udalaren Osoko Bilkurak argi berdea eman dio Adikzioen Prebentziorako II. Planari (2022-2026). Bost ardatz estrategiko batzen ditu planak: osasunaren prebentzioa eta sustapena, eskaintza murriztea eta eskaintza/eskaria kontrolatzea, arreta soziosanitariarioa eta gizarteratzea, ezagutzaren kudeaketa eta prestakuntza eta koordinazio komunitarioa. Adikzioen aurka borrokatzeko eta herritarrei laguntzeko 20 programa eta jarduera bultzatu nahi dituzte plan honekin. Ane Beitia alkateak azaldu duenez, "plan honen helburu nagusia kontsumoak eta portaerak prebenitzea da, gizarte osasuntsuagoa, osasungarriagoa eta bere osasun eta ongizateaz arduratzen dena lortzeko". 2021ean egindako adikzioen diagnostikoaren arabera, gazteak batez beste 13 urte eta bost hilabete dituztenean hasten dira alkohola kontsumitzen, tabakoa baino urtebete lehenago eta kanabisa baino hamabost hilabete lehenago. 10 gaztetik ia bik, gehiegi kontsumitzen dute alkohola (150 gramatik gora alkohol puru edo bi botila ardoren alkohola, 15 garagardo edo 7.5 graduazio altuko konbinatuak). Gehien kontsumitzen diren legez kanpoko drogak kannabisa (10 gaztetik batek), kokaina (100etik bik) eta estasia (200etik batek) dira. Internetez kanpoko apustuak 10 gaztetik batek egiten ditu, eta bikoitza edo hirukoitza da gizonetan. Adin nagusikoei dagokienez 10 euskal herritarretik zazpi alkohola kontsumitu du azken hilabetean, % 22k egunero erretzen du tabakoa (emakumeen % 18k eta gizonezkoen % 25ek) eta % 5ek kannabisa kontsumitu du azken hilabetean. Alkoholaren kontsumoa, joko patologikoa eta teknologien gehiegizko erabilera dira herritarrek hautematen dituzten arazo nagusiak. Planak bultzatzen dituen 20 programek ikastetxeentzako prestakuntza eta dirulaguntzen ekimenak, gurasoentzako prestakuntza, aisialdiko programak eta jarduerak, zahartze osasungarriko programak eta ezagutza-ekimenak jasotzen dituzte, besteak beste.

Stock kale azoka antolatu du Txankakuak gaur eta biharko

Txankakua elkarteak stock kale azoka antolatu du gaurko eta biharko, eta 23 establezimenduk hartuko dute parte. 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara denda atarietara aterako dituzte produktuak, prezio merkeagoan. Stock kale azokan egindako erosketak bakoitzeko, bezeroak txartel bat jasoko du eta 600 euroko (100 euroko sei sari) zozketan sartuko dira. Hauek hartuko dute parte: Aranburu bitxi-denda, Aauri lurrindegia, Bizkor bizikletak, Casa Astigarraga, Cristina Garcia estetika, Ecenarro lenceria, Ene Bada, Ikus optika, Modas Ferpi, G & M jantzi denda, Garate jantzi-denda, Goiara, Ipintza, Iria, Iriondo Kirolak, Karkizano, Lagunak koltxoi denda, Lete, Moma, Nalai oinetakoak, Olaia Martinez estetika, Pitxintxu, Sara jantzi denda, Uzuri. Azoka dela-eta, alde zaharra trafikoarentzako itxita egongo da egun eta ordu horietan.

Gazteen artean lanbide heziketa eta industria sustatzeko saioak egiten ari dira

Gazteek lanbide heziketa, unibertsitatea eta industria bertatik bertara ezagutzeko asmoz, Udalak Ekiten tailerrak antolatu ditu IMH, Meka, Arreiturre Institutua eta Elgoibar Ikastolarekin elkarlanean. Martxoaren 9tik 16ra Elgoibar Ikastolako eta Arreiturre Institutuko DBHko 4. mailako ikasleek bertatik bertara ezagutuko dituzte lanbide heziketako ikasleen bizipenak. Era berean, SWISSLAN eta AVS enpresak bisitatuko dituzte. Jardunaldiaren ondoren, dinamika-gogoeta egingo dute Manahmana enpresaren laguntzarekin. Maiatzaren 2tik 5era, berriz, Elgoibar Ikastolako eta Arreiturre Institutuko DBHko 3. mailako ikasleek IMH eta MEKA ikastetxeak bisitatuko dituzte.



Beiraren pilaketaren arrazoiak azaldu ditu Mankomunitateak

Debabarrena Mankomunitatetik jakitera eman duteenez, ECOVIDIO erakundeak arduratzen da Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herrietan beira biltzeaz, baita Debabarrenean ere, Eusko Jaurlaritzarekin duen hitzarmenari esker. ECOVIDIOk beste enpresa baten bidez jasotzen du herrietako beira, baina azken asteetan Debabarrenako beiraren edukiontzietan hondakinak pilatzen ari dira, "enpresak horrek bilketa behar bezala egiteko nahikoa ibilgailu ez dituelako". Oraingoan, bilketaz arduratzen den enpresak baliabideak indartzeko ahalegina egin du eta erabilgarri dauzkan ibilgailuekin bilketa txandak indartu ditu, zerbitzua modu egokian emateko. Dena den, ECOVIDIOk Mankomunitateari adierazi dionez, "martxoaren amaierara arte edo apirilera arte" ezin izango dela beira bilketa zerbitzua behar duen modukoa izan.

Debarrena suspertzeko ponentzia parte hartu du Debemenek Eusko Jaurlaritzan



Debabarrena suspertzeko ponentzia aurkezten ari dira Eusko Legebiltzarrean eta Debemen Landa Garapen elkartearen txanda izan zen otsailaren 25ean. Elkarte aurkezteaz gain, Debarreneneko landa eremuaren deskribapena eta nekazaritza aktibitatearen egoeraren berri eman zuten. Era berean, landa guneko biztanleen bizi kalitatea hobetzeko beharrak nabarmendu zituzten: landa bideen egoera hobetzeko beharra; ur edangarri sarearen eta saneamendu sistemaren hedapenik eza; garraio publikoaren zerbitzu falta hiriguneko zerbitzuetara iristeko; eta banda zabalaren hedapen geldoa.

Aktibitate ekonomikoaren arloan nekazaritzan, profesional gutxi dagoela adierazi zuten eta dibertsifikazioa turismo jardueratik etorri dela gehienbat, bizikidetzara arazoak gehituz. Beraz, interes guztiak uztartu beharra ikusi dute.

Nekazaritza aktibitate berri bat jarri nahi dutenek lurra eskuratzeko zailtasunak dituztela ere esan zuten. Baserritik bizi ez diren baso lurjabeak hazkunde azkarreko zuhaitzak landatzeko duten joera ere izan zuten hizketagai, horrek nekazaritzarako lur erabilgarriaren okupazioa, biodibertsitate eta zerbitzu ekosistemikoaren galera eta paisaiaren aldaketa eragiten dituela esanez.

Debemenek horren harira eskatu zuen eskualdea suspertzeko eta landa eremu bizi bat izateko, behar horiek kontuan izatea: "landa eremuak ematen dituen onurak ez dira bakarrik bertan bizi direnentzako, gizarte osoarentzako ezinbestekoak dira".

200.000 euroko diru-laguntza jasoko du Mendaroko Udalak erdigunea eta ospitalea lotzeko igogailurako

Landa-garapenerako Europako laguntzen Leader programaren bitartez 200.000 euroko diru-laguntza eskuratu du Mendaroko Udalak herri-erdigunea Ospitalearekin lotuko duen igogailu publikoa garatzeko. 2021ean 114.000 euro jaso zituen eta gainontzeko 86.000 euroak 2022an emango dizkiote. Leader programaren diru-laguntzen helburua da landa inguruko udalerrien ekonomia sustatzea, garatzea eta dibertsifikatzea. Igogailuaren obraren hasierako aurrekontua 1.632.774 eurokoa da eta erdia Eusko Jaurlaritzak finantzatzea da aurreikuspena. Udalaren asmoa da lanak 2022ko apirilean hasi eta 2023ko lehen seihilekoan martxan egotea igogailua.

Etxez etxeko laguntza zerbitzurako hitzarmena berritu dute Mendaron

Hitzarmena berritu dute Mendaroko Udalak eta Foru Aldundiak datozen bi urteetan etxez etxeko zerbitzua emateko. Iaz 17 pertsona artatu zituzten zerbitzu honen bitartez: bostek zerbitzu pertsonala jaso zuten, seik etxez etxekoa eta beste seik mistoa. Hiru erabiltzaile berri izan baziren ere, seik zerbitzua erabiltzeari utzi zioten. Mendekotasuna duten pertsonentzako eta arreta behar duten beste kolektibo batzuentzako Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko baldintzak zehaztu dituzte sinatu berri duten hitzarmenarekin. Alkateak zerbitzuaren garrantzia azpimarratu du: "zerbitzuarekin pertsonak beren inguruan geratzea sustatzen dugu, deserrotze egoerak saihestuz, beren senide eta profesional espezializatuekin maitatuak eta lagunduak sentitzea bermatuz".

Kutxabankek pertsona kalteberei aurrez aurreko arreta errazteko eskatu du Mendaroko PSE-EEK

PSE-EE Udal talde sozialistak Mendaroko Udalari eskatu dio herrian zerbitzuak ematen dituzten enpresa eta erakundeek herritar adineko zein kalteberei aurrez aurreko arreta eskaintzea tratua gertukoa eta azkarra izateko, eta makinak eta ordenagailuak derrigorrez erabili beharra saihesteko, "izan ere hori traba da zailtasunak dituzten herritarrentzat". Horren harira aurkeztutako mozioa azken Osoko Bilkuran onartu egin zuten, baina ohar batean Maria Jose Telleria bozeramaile sozialistak Kutxabanki eskatu dio udan ez ixteko herriko banku-bulego bakarra: "eragozpen handia da eta, batez ere, herriko zaharrek zigortzen ditu". Horrez gain, esan du urte osoko ordutegia mugatua dela.



Ukrainara begira



Inbasio militarra hasi zuen Errusiak joan zen astean, Ukrainako Donbass herrialdea bereganatzeko asmoz. Militarrek Kieven sartu ziren barikuan, eta herrialde osoan zehar zabaldu dute euren presentzia. Hainbat herrialdek eraso eta eteko eskatu diote Errusiarri, eta gerraren kontrako mobilizazioak hasi dira han eta hemen. Gurean, barikuan egin zuten kontzentrazioa Mendaron, eta aste honetan bilketa egin dute, Ukrainara jana eta oinarritzko produktuak bidaltzeko. Elgoibarren eta Mendaron bizi diren bi ukrainarrekin egon gara, eta baita beraien etxean Chernobilgo umeak hartzen dituzten bi familiekin ere. Gerraren hasierak Moskun harrapatu duen elgoibartar bat ere ekarri dugu erreportaje honetara. Gerrak ezinegona sortzen du eta haien testigantzak bildu ditugu orriotan.

AINHOA ANDONEGI



SVITLANA KORNITSOVA
Elgoibarren bizi den ukrainarra

“Beldurtuta nago, ikaratuta. Ezin dut lorik egin, eta ezin dut jan. Korapiloa daukat sa-belean, hau ez da bizimodua. Gure herria Kievetik 30 kilometrorra dago, eta gerra piztu zen egunean bertan iritsi ziren hara militarrek. Nire aitak 65 tanke kontatu zituen. Muga guztia hartuta dute, eta Bielorrusia gainera, Errusiarri laguntzen ari da. Gure herritik 20 kilometrorra sekulako borroka dago une honetan, eta lagun batek esan didanez, inolako errukirik gabe ari dira Errusiarrek erasoan, aurrean duten edonori. Zibilei ez zietela eraso esan zuten, baina gezurra da. Lagunak idatzi dit esanez lurpeko babeslekuetan daudela ezkutatua, beldurrez akabatuta. Momentuz bizirik daudela idatzi dit, baina ez dakit hurrengo mezua noiz jasoko dudan, jasotzen badut. Kharkov hiria gure herritik gertu

dago, eta han jendea metroan babesten ari da, lur azpian. Donbass hartu nahi duela esan du Errusiak, baina herrialde osoan zehar daude militarrek. Iparraldetik zein hegoaldeetik sartzen dira, eta dena hartzen ari dira. Errusiak armada oso indartsua dauka, potentzia handiko armak ditu. Lagunek irudi benetan beldurgarriak bidali dizkirate. Ni Elgoibarren nago eta hemendik ezin diet ezertan lagundu. Hegaldiak etenda daude, eta errepidez ere oso arriskutsua da une honetan inora joatea. Orain dela hamar urte iritsi nintzen Elgoibarrera, eta nire anaia ere hemen bizi da. Gurasoek esan didate horrek asko lasaitzen dituela, gu han egongo bagina orain askoz larriago egongo lirakeelako. Nire senarra ere ukrainiarra da, eta bere familia gehiena ere hemen dago, baina, hala ere, hango lagun eta senideengatik oso kezkatuta gaude. Herrialde osoak kezkatzen nau, ez dago eskubiderik! Momentuz nire gurasoak ondo daude, elektrizitatea eta ura badituzte, eta jana ere bai, baina ama hasi da ogia etxean egiten, okina ez delako agertu egunotan. Ez dakigu egoera hau zenbat luzatuko den, eta konexioa galduko balute, beraien berririk gabe, erotu egingo naiz. Zorakeria bat da hau, ez dago ulertzerik. Errusiako militarren artean ere mutil gazte asko dago, eta horiek ere hil daitezke. Horien amek ere ez dute horrelako sufrimendurik merezi. European inork ez dugu gerrarik nahi, bakea nahi dugu. Putinen helburua da bere boterea erakustea, Amerikaren eta Europaren aurrean. Otsailaren 23a Errusian Festa Eguna da, jendea parrandan zegoen Moskun, eta goizeko bostetan hasi zuten gerra. Putin orain pozik dago, eta hori onartezina da”.

IDURRE ARAKISTAIN, Ukrainako umeak etxean hartzen dituen mendaroarra

Idurre Arakistain mendaroarra aspalditik da Chernobilen Lagunak elkarteko kide, eta haren bitartez, Ukrainako umeak hartzen ditu etxean. Maxim izan zen lehenengoa, eta zortzi urtez etorri zen Mendarora. Azken urteetan, bere arreba txikia Yana ere etorri izan da. Maximek bere borondatez utzi egin zion etortzeari, baina Yana oraindik etortzen da Mendarora. Pandemiaren ondorioz, azken bi udatan ez da etorri, baina azken Gabonetan, hemen izan da berriz ere. Ivankhivetik gertu bizi dira, herri txiki batean, eta handik jaso dituzten mezuak ez dira onak: "Lehenengo egunetan esan ziguten ondo zeudela, bazutela jana, argia eta ura, baina audio horiek entzuteaz bat sekulako korapiloa sortu zitzaidan sabelean. Nola da posible 10 urteko ume batek egoera hau bizi beharra izatea?. Amak esnatu zuen goizean, eta larrialdiadietarako maleta prestatu behar zutela esan zion, baina nora joango diren ere jakin gabe". Maximek eta Yanak beste arreba nagusiago bat ere badute, Marina, eta hura Ivankhiven bizi da: "Hark esan zigun joan zen astean jada argindarrik gabe zeudela, eta sakeleko telefonoaren bateria agortzear zeukala, beraz, gurekin komunikazioa eten egingo zuela. Bakarrik bizi da, eta izebaren etxera joan zen, bakarrik ez egoteko". Maximek 20 urte egingo ditu aurten, eta Idurreri kezka eragiten dio horrek, ez dakielako gerrara deituko duten, edo agian bere borondatez erabakiko duen borrokara joatea. "Ezintasun handia sentitzen dugu, hemendik ezin diegu lagundu, eta oso kezkatuta gaude".



YULIYA PROKOPENKO Mendaron bizi den ukrainarra

"Ukrainako erdialdean dago gure herria, hiriburutik 180 kilometrora. Aireportua daukagu gertu, eta zubi garrantzitsu bat ere bai. Nahiko puntu estrategikoa dela esango nuke, baina gurasoek esan didatenez, momentuz lasai daude. Gerra goizaldeko bostetan hasi zen, eta une horretan bertan deitu nion amari. Esna zeuden beraiek ere, eta larrialdi-motxila prestatuko zutela esan zidaten. Agiriari hiru kopia egin behar dituztela azaldu ziguten, senideren bat galtzen bada, nola aurkitu behar dugun ere azaldu ziguten... Dirua ere aterata zeukaten bankutik badaezpada, eta autoaren depositoa ere beteta zuten. Aita osasunez ahul samar dago, eta urduritasunarekin tentsioa asko igo zitzaien. Ez zekiten hirian geratu edo herrira joan, eta azkenean joatea erabaki zuten. Bidean lasai joan ziren, baina ilara handiak ikusten zirela esan zidaten, gasolindegietan, botiketean... Baserri moduko bat dute herririka batean, eta momentuz han lasai daude, jana badute, ura eta argindarra ere bai eta aita pare bat hilabeterako botikak ere hartu zituen. Internet badaukate, eta telebista kate bat ere bai, baina informazio gehiena sare sozialen bidez jasotzen dute. Albiste faltsu asko daude, eta kontu handiz ibili behar

gara. Nire lehengusu eta izebak Kharkovetik gertu bizi dira, herri txiki batean, mugatik gertu dago, eta zona hori kezkarriagoa da. Milioi bat biztanle ditu, eta lagun asko ditugu han. Esan didate metroan egin dutela lo, lur azpian, nolabait babesteko. Jende asko Poloniara ihes egiten ari da, baina zaila da. Polonia emakumezkoak eta umeak bakarrik hartzen ari da. Nire lagun batzuk esan didate Kievetik ihes egitea lortu dutela, eta herritarrak elkar laguntzen ari direla. Egoera oso gogorra da, eta hemendik ezin dugu asko lagundu. Ukraina-Euskadi elkarteko kidea naiz eta kontzentrazioak antolatzen ari gara gerraren kontra egiteko, eta komunitate askok babestu gaituzte. Jendea laguntzeko prest agertu zaigu, eta hori eskertzekoa da. Europar Bataunari erregutzen diogu laguntzeko. Putinek ez dauka geratzeko asmorik, baina norbaitek geratu dezala eskatzen dugu".



CARMEN LARRAÑAGA ETA ESTI GONZALEZ

Ukrainako umeak etxean hartzen dituzten ama-alabak

Carmen Larrañaga orain dela hamabost urte jarri zen Chernobil Elkartearekin harremanetan, eta ordutik, Ukrainako umeak jasotzen ditu udako oporraldian, etxean. Nastia izeneko neskatxa bat ekarri zuten lehenengo. Zazpi urte zituela ekarri zuten lehenengoz Mendarora, eta 18 urte egin zituen arte egon zen etortzen. Orain, Ana jasotzen dute, eta azkenekoz, Gabonetan izan zuten etxean. 12 urte ditu, eta hiru nebarreben artean, zaharrena da. "Oso triste eta urduri gaude. Telebistan ikusten ditugun albisteekin oso kezkatuta gaude, eta Chernobilgo umeak

ekartzen dituen elkartetik iristen zaizkigun berriak ere, ez dira onak. Anaren amarekin whatsapp bidez hitz egiten dut, mezu laburrak, baina zeozer behintzat! Chernobiletik oso gertu bizi dira, eta hango bonben zaratak entzuten dituztela esan dit. Militar errusiarrek ere ikusten dituztela etxetik, eta umeak, bereziki, oso beldurtuta daudela. Lorik ez dutela egiten apenas, eta neu ere sarri esnatzen naiz gauetan, haiekin akordatzen. Galdetu nion ea bazeukaten bonbetatik babesteko lekuren bat lur azpian eta ezetz esan zidan. Momentuz etxean zeudela. Nik sinistu nahi dut eurei ez dietela ezer egingo, zibilei ez dietela erasoko, baina, auskalo. Lehen beste ume bat ekartzen genuen, Nastia. Hark 23 urte dauzka dagoeneko, eta orain ez da etortzen gurera, baina harremana mantentzen dugu eta familia harekin ere kezkatuta gaude. Inpotentzia handia sentitzen dugu, eta hemendik ezin dugu ezer egin. Guk nahiko genuke ume haiek handik ateratzea, baina orain ezin da. Triste gaude, urduri eta penaz".

Esti Gonzalez Carmenen alaba da, eta honek ere inpotentziaz bizi du egoera hau. "Urduri eta triste gaude. Gogorra da ezagutzen dugun jendea egoera hori bizitzen ari dela ikustea. Lehen Nastia etortzen zen gure amaren etxera, eta zorionez bera orain Bordelen dago, baina bere ama Kievetik oso gertu bizi da, eta bonbardaketak han bertan ditu. Ana etortzen da orain gurera, eta beldurrez daudela esan digu. Tropak etxetik oso gertu ikusten dituztela, Chernobilgo bonbardaketak entzuten dituztela... Momentuz haiek Internet badute, eta espero dugu behintzat harremanik ez galtzea. Beste batzuk dagoeneko galdu dute kontaktua. Amesgaizto bat da hau. Esnatu eta bukatu egingo dela pentsatzen dut, baina ez da horrela, benetan gertatzen ari da. Gu han egonda gaude, gainera, ezagutzen dugu inguru hura eta irudi horiek ikustea sinestezina da. Espero dut hau dena azkar bukatzea eta gure familiak ondo egotea".

RUBEN IRIGOYEN

Gerrak Moskun harrapatu duen elgoibartarra

"Moskura joan behar nuen lanera, eta hegazkina hartu aurretik hango kontaktuei galdetu nien zer sentazio zuten, hegaldia bertan behera laga edo ez erabakitzeke. Esan zidaten medioetan irteten zen guztia ez sinisteko, eta bost egunerako bakarrik joan behar nenez, aurrera egitea erabaki nuen. Astelehenetik asteazkenera gerraren kontua burutik kenduta izan nuen, baina ostegunean esan zidaten Putin hasi zela Ukraina erasotzen. Une horretan bertan etxera itzultzeko hegaldiren baten bila hasi nintzen, eta zegoen hegaldi bakarra goizean goiz irten zela ikusi nuenean, kezkatzen hasi nintzen. Gainera, Covid-19aren egoera gehituta, hegaldien maiztasuna lehenago baino eskasagoa da. Eguneko zereginak normaltasunez egin banituen ere, telefonoa behin eta berriz eguneratzen nuen, hurrengo goizerako neukan hegaldia bertan behera uzten bazuten, etxera bueltatzeko beste moduren bat bilatzeko. Azken egun eta erdia tentsioan pasatu nituen. Egoera hortan han gelditzeak beldurtzen ninduen, eta Europarako hegaldi gehienak Aeroflot konpainia errusiarrarekin egiten direnez, horiek bertan behera geratzeko aukera erreala zen. Nik alde egin eta bi egunera hegaldiak bertan behera geratu ziren. Ez dut egoera kritikorik bizi izan, zorionez, eta arazorik gabe bueltatu ahal izan naiz. Egoera kritikoa Moskutik ia mila kilometrora bizitzen ari dira. Geopolitikan jantzia enaizenez enaiz nire ikuspuntua ematera sartuko, baina edozein kasutan, espero dut gerra hau ez kronifikatzea, munduko beste hainbat lekutan gertatu den bezela".



KONTSULTATEGIA



Hortzak horixkak ditut eta hauek zuritzea pentsatzen nabil. Gure ahoaren osasunerako ona den jakin nahiko nuke



Hortzak zuritzea tratamendu estetiko bat da, gure hortzek tonu zuri eta distiratsuagoa har dezaten egi-



ten den tratamendua. Hortzetako tratamendu guztiekin egin behar litzatekeen moduan, odontologoak azterketa egin beharko luke tratamendua hasi aurretik, pazienteak patologiarene bat duen aztertzeko: txantxarra, gingibitisa, hortzetako infekzioa edo infekzio periodontala... Hortzak zuritu aurretik, tratatu beharrekoak identifikatu behar dira, kontraindikaziorik balego, zer egin behar den jakiteko. Halaber, pazienteak hortzetako hipersentikortasuna duen aztertu behar da, hortzak zuritzeak areagotu egin dezakeelako.

Hortz zuritzea kontsulta odontologikoan egin beharko litzateke, baina modu ambulatorioan egitea erabakitzen bada (etxean: ferulak + gel zuritzailea), betiere adituen argibideei jarraituz eta odontologoaren zaintzapean egitea komeni da, arriskuak saihesteko.

ALDAZ HORTZ KLINIKA

San Bartolome, 22- 20870 Elgoibar
iyd@dentalaldaz.com

943 366 377

Babes handia jaso du Ukrainarako laguntza eskaerak

Ukrainara materiala bidaltzeko eskaerak erantzun zabala izan du Mendaron zein Elgoibarren. Yuliya Prokopenko Ukraina-Euskadi elkarteko kideak sustatu du ekimena. Mendaron bizi da, eta Elgoibarren lan egiten du, beraz, bi herrietan egin dute bilketa. Era guztietako materiala eskatu zuten Ukrainara bidaltzeko: higienarako produktuak, pardelak eta umeentzako bestelako produktuak, hotzaren kontrakoak (barruko arropa termikoa, eskularruak, galtzerdi termikoak.. lotarako zakuak, gorputza berotzekoak, botila termoak, su txikiak, txiskeroak, pospoloak, argindarra sortzeko gailuak, kandelak, linternak, pilak), jakiak eta bestelakoak (bendak, gasak, bata kirurgikoak, musuko kirurgikoak, arnasa hartzeko maskarak), besteak beste. Herritarrek ondo baino hobeto erantzun diote eskaerari, eta kamioia txiki geratu zaie bildutako material guztia sartzeko. Eguaztenean abiatu zen kamioia, eta furgoneta txiki bat ere bete zuten arren, bigarren kamioi bat ere beharko dutela jakinarazi zuten arduradunek.

Era berean, nahi duenak diruz laguntzeko aukera ere izango du, donazioen bidez, honako kontu zenbakian: ES16 2095 5001 00 9114437029. Kontzeptuan 'donazioa' hitza jartzeko eskatu dute. Ukraina-Euskadi gizarte eta kultura arloko eta garapenerako lankidetzako elkarteren kontua da. Ukraina-Euskadi gizarte eta kultura arloko eta garapenerako lankidetzako elkarterekin harremanetan jartzeko: ucraniaeusyadi@gmail.com helbide elektronikora idatzi daiteke edo honako telefonoetara deitu: 642 772 760 / 636079 690.



INAUTERIAK ARGAZKITAN

Bideo eta argazki gehiago: www.barren.eus









Martxoaren 8a; Emakumeen Eguna. Ospakizun eta aldarrikapenatarako bat egingo dute emakumeek, baina emakumeek bat egiteko ez dago egun bakarra. Ez egun eta ezta toki bakarra ere, baina, Elgoibarko emakumeek badute elkartzeko toki bat; hausnarketarako, eztabaidarako, ikastaroetarako zein bestelako jardueretarako: Lila Elgoibarko Emakumeen Etxea. Herriko emakume guztientzat dela azaldu dute Lilako mahaiko kideek.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -



Lila: emakume guztiek bat egiteko atea zabalik dituen etxea

Azko irailean inauguratu zuten Lila, Elgoibarko Emakumeen Etxea. Ateak ireki arteko ibilbidea luzea izan zen, ordea. Emakumearen Kontseilutik hasi zen gauzatzen proiektua. Elgoibarko emakumeen elkarteetako ordezkariak eta herriko ikastetxeetako guraso elkarteetako ordezkariak zeuden talde hartan, eta emakumeentzako gune erreferente baten beharra zegoela ikusi zuten. “Elkartzeko gune bat, elkarriketa eta eztabaidarako emakumeek erreferentetzat izango zuten toki bat”, esan du garai hartan Institutuko guraso ordezkari gisa zegoen eta orain bere izenean Lilako Mahaian diharduen Paki Luchak. Hortik abiatu ziren eta orduan ideia zena, urte batzuen buruan ipini zuten martxan.

Ikastolako Guraso Kontseilutik joan zen Jasone Osoro taldera, eta bera ere gaur egun Lila Mahaiko kide da. Ideia izatetik, proiektua gauzatzera denbora pasa zela uste du, lokala falta zelako eta proiektua kudeatu behar zelako. Bere esanetan, “elkartzeko leku izateaz gain, formakuntzarako lekua ere bada Lila. Hori edozein adinetan da garrantzitsua, zenbat eta gazteago hasi hobea, baina adin batetik gora ere beharrezkoa da”. Lila sortu zen arte emakumeekin lotutako formakuntza kontuak toki ezberdinetan egiten ziren, sakabanatuta. “Orain helburua da genero berdintasunarekin lotutako gaien formakuntza saioak Lilan izatea. Gainera, lehen lokaletan izaten ziren eta orain etxe batean”, dio Jasonek.

Bateratu arren, badago aukera ekintzak beste toki batzuetan egiteko eta ekintzen arabera aberatsa izan daiteke, baina Lila erreferente izatea dute helburu. Lilan bi bulego, bilera gela, sukaldere bat eta balio anitzeko gela handi bat (hiru gunetan banatu daitekeena) daude. “Emakumearekin lotutako gauza guztiei tokia egin nahi zaie: hitzaldiak, hausnarketak, formakuntza saioak, ikuskizunak, bilerak... eta elkarteetako (Haizea, Loreak, Narrutsik) emakumeek zein norbanakoek badakite non dagoen bere lekua”, esan du Pakik.

EMAKUMEEK EMAKUMEENTZAT

“Lila, emakumeek emakumeentzat sortutako gunea da”, Pakiren esanetan, eta 16 urtetik gorako emakumeak joan daitezke. King-Kongen dago, lehen Liburutegia zegoen tokian, herriaren erdigunean. Hala ere, argi utzi dute gizonetakoek ez dutela atea itxita, beti ere feminismoarekin bat egiteko prest daudenean, adibidez, pribilegioen gaia lantzeko. Udaleko Berdintasun teknikari Mikel Etxanizek jakinarazi du ahailegindu direla gizonak Lilara gerturatzen horrelako gaiak lantzeko, baina ez dutela lortu aurrera egiterik. Jasone Osorok esan du gizonak inplikatu ezean ez dagoela zereginik. “Ni gizonetako banantz eraso baten aurrean atzerako nintzateke kalera protestara, izan ere, sutan jarriko nintzateke

Lilako mahaia irekia da

eta zenbat eta jende

gehiago izan

berbaldiak ere irekiagoak

izango liratekeela

uste dute kideek

gizon izate hutsagatik erasotzaile izan nai-tekeela pentsatuko balute”.

Erasoen gaia aipatuta, Lila bestelako zerbitzuetara bideratzeko aukera ere egon zitekeela uste dute, esaterako, tratu txarren aurkako salaketetara, “baina hori Gizarte-Ongizate Sailarekin landu beharreko gaia da. Emakume bat jazarpen egoeran egon eta salatzeke pausoa ematera ausartuko ez balitz, Lila izango litzateke beretzako gunee bat beste emakumeekin elkartzeko hauen aholkuak eta babesa jasotzeko”, dio Jasonek. Gainera, Lilako hainbat jarduera horrelako gaietara bideratzen dira batzuetan beharra dagoela ikusita. Pakik zehaztu du noizbait Emakumeen Kontseiluan hitz egin dutela bulegoa aholkularitzarako izateko aukeraz.

GENERO BERTINTASUNA MODU ANITZEAN

Gaur egun Lilako Mahaia hilean behin elkartzen da eta zortzi lagun inguru daude taldean. “Saiakera egin dugu jende gaztea edo etorkinak erakartzeko. Batzuk gerturatu dira, kostata, eta beste batzuk ez dute taldean jarraitu”, esan du Bertintasun teknikariak.

Hala ere, mahaia irekia dela eta parte hartu nahi duten emakumeek Herritarren Arreta Zerbitzura jo eta izena eman baino ez dutela azaldu du Pakik: “zenbat eta gehiago izan, hobe, berbaldi irekiagoak izango bailirateke”. Askotariko gaiak lantzen dituzte, orain, esaterako Martxoaren 8a da gai nagusia.

Gainontzeko ekintzak ere askotarikoak izan ohi dira, baina oinarria genero berdintasunean dutenak. “Nik, esaterako literatura sorkuntza ikastaroa ematen dut

baina genero ikuspegitik eta taldea bera ere anitza da, ez daude emakume taldeetan dihardutenak bakarrik eta badira emakumeen ekintzetan sekula parte hartu gabeak ere”, esan du Jasonek. Zine forumean zuzendari edo protagonista emakumezkoa duten edo gaia emakumeekin lotua duten filmak ikusten dituzte, eta gero, horren inguruko berbaldia egiten dute. Antolatutako ekintzetara ez da espero bezain beste jende joaten, “baina beti etortzen da jende berria eta pertsona berri bat etortze hutsa asko da guretzat. Ahoz ahoko komunikazioak ondo funtzionatzen du”, dio Pakik. Jasoneren ustez gizonen, oro har, ekintzetan gutxiago parte hartzen dute, “eta generoarekin lotutakoetan are gutxiago”.

‘Egunero da martxoak 8’

Martxoak 8aren harira Emakumearen hilabetea antolatu dute herriko eragile desberdinek, eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte emakumeekin lotuta.

Gaur hasi eta hilaren 13ra arte *Mendia Emakumetasunetik* argazki erakusketa izango da Jon Martinez Ibarren lanekin, eta martxoaren 10ean erakusketako protagonistekin mahaingurua egingo dute Kultur Etxeko erakusketa gelan, 19:00etan.

Musikak ere izango du lekua martxoko

ekitaldietan. Izan ere, Sustrai akordeoi talde elgoibartarrak 12:30ean kontzertua eskainiko du bihar, Herriko Antzokian. Uluka Batukak ere martxoan bi saio egingo ditu herria emakumearen alde esnatuz; martxoaren 5ean akordeoi kontzertu ostean Maalako parketik abiatuta, eta 8an, 19:30eko Kalegoen plazako elkarretaratzean. Ekitaldi horretan emakumeen aurpegi argazkiekin mural erraldoi bat egingo dute *Elkartuta, infinituraino!* mezua plazaratuz. Horretarako, 19:30ean, argazkiak plazara eraman behar dira. Argazkiak aurpegikoak izan behar dira plano osoak, begiradaren lehen planoak, aurpegia garbi, zikinduta, koloreztatuta, mozorrotuta... Martxoaren 8an, arratsaldean ezezik goizez ere izango da elkarretaratzea Kalegoen plazan 11:00etan.

Ospakizunak janaren bueltan ere egin ohi dira eta martxoaren 5ean emakumeen bazkaria izango da 14:45ean, Sigma jatean.

Baina kulturak martxoan barrena izango du lekua emakumeen egitarauan. Maite Larbururen kontzertua egongo baita martxoaren 11n eta *Yo, la peor del mundo* antzezlanak martxoaren 18an.

Martxoak 8 egunero dela gogorazteko izango dira ekitaldiok, “eta lema hori aldarrikatzen jarritzen dugu ez delako betetzen eta egun zehatz batean ospatu behar bada oraindik egiteko asko dagoelako. Borrokan segi behar da eskubide berdintasuna lortzeko, baina urte osoan barrena”, dio Paki Lucha Lilako Mahaiko kideak.



Emakumeak eta genero berdintasuna dira oinarri, baina modu anitzean landuta. "Gauza ezberdinak egitea da asmoa", esan du Jasonek. "Arrakasta gehien emozioen lanketarako egiten diren saioek dutela jakinarazi du Berdintasun teknikariak. "Jendea erakartzeko ahalegintzen gara formakuntza saioak erreminta ezberdinekin egiten: irakurketa, idazketa, sukaldaritza... abarrik oso zabala da".

Urtean bitan sei hilabeteko programazioa prestatzen dute eta herritarrei bidaltzen diete, dauden ekitaldien berri izan dezaten eta aurrez izena eman behar den kasuetan, hala egin dezaten. Dena dela, programan jasotakoez gain, egoten da beste ekintza batzuk antolatzeke aukera, beti ere ikuspegi feministatik, gizon eta emakumeen berdintasuna sustatzeko helburuarekin. Izan ere, eskaera eginez gero, Lila irekita dago herritarrentzat.

Gainera, Lilatik jakinarazi nahi dute Lila ez dela formazio-rako txoko bat bakarrik. Kontzertuak, bakarriketak edo beste ikuskizunak ere egin direla eta aurrerantzean ere egin daitezkeela, hau da, aisialdiak ere badu bere tokia Lilan. "Ikasteko propio antolatzen diren saioetatik ikasten da, baina baita beste jardueretatik ere. Lilako saioak debaldekoak dira eta pribilegio bat da horrelako ekintzetan parte hartzea", dio Jasonek.

Era berean azpimarratu nahi dute ez dela pertsona konkretuentzat. Jarduera batzuetan pertsona berek parte hartu arren edozein joan daiteke gaia bere interesekoa denean. Pakik esan du berak emakumeentzako ikastaro batean parte hartu zuela eta taldea oso heterogeneoa izan arren, lau urteren ostean, oraindik elkartzen direla.

Pakik oso positibotzat jo du Lila moduko etxe batean elkartzea: "udaletzeko bulego batean elkartzetik Lila bezalako gune neutralago batera pasatzean, emakume batzuek talde parte hartzaileago bat ikusi dute. Hala ere, Emakumeen Kontseilurik ezean, ez genuke Lila izango. Askatasun osoz jokatzen dugu emakumeentzako onuragarri izan daitezkeen gauzak antolatzeke".

Emakumeen Kontseiluan Ikastolako guraso ordezkari modura sartu zen borondatez. Jasone ere, eta gaur egun feminista militante gisa jarraitzen du taldean: "Nik sinisten dut emakumeon iraultzan eta mundu justuago bat nahi badugu feminista izan behar dela sinistuta nago, emakumea naizelako, bi alaba dauzkadalako eta ez dudalako ulertzen bizitza ikuspegi feminista batetik ez bada. Badakit ez dudala mundua aldatuko, baina nire ingurua aldatzen badut zertxobait behintzat egingo dut, esaterako, literatura hitzaldi bat ematera joanez gero ere, beti egiten diot keinu feminismoari".

Beren ahalegina egiten ari dira, baina uste dute jende as-



kori oraindik feminismo hitza entzute hutsak belarriko mina eragiten diola, eta oraindik badaude ez dituztenak ulertzen Lilako kideen jarrera eta jokamoldeak.

JENDE BERRIA FALTA

Lila martxan da, bai, baina sumatu dizkiote hainbat hutsune eta horiek betetzea da beren asmoa. Esaterako jende berria, jende gaztea gerturatzea da horietako bat, izan ere, Lilako Mahaian gehiengo 40 urtetik gorakoa da gaur egun, feminismoak gazteen artean lekurik baduen arren. "Guk 15 urte genituenean feministak ginen hori zer zen jakin gabe. Orain, adin horretako neskek Feminismoa zer den jakiteaz gain, aldarrikapenerako prest daude, badakite eskubideak dituztela, baina asko dago egiteke oraindik".

Emakumeen arteko eztabaiden premia ere badagoela uste dute. "Uste dut oso aberasgarria dela adin eta ikuspegi ezberdinetako jendearen arteko eztabaida. Askok uste dute emakumeak eta emakumeontzat antolatutako gauzetara beti jende bera joaten garela, beraz, ez dago erreleborik. Aurrerapausoak eman ditugula uste dugu, baina pentsatu baino txikiagoak dira", dio Pakik.

Jasoneren ustez, Udaleko Berdintasun Sailak martxoaren 8aren eta azaroaren 25aren harira ekintzak antolatzeke deialdiak egitea eta beste talde batzuk parte hartzera gonbidatzea aurrerapauso bat izan da. "Askok inplikatu dira eta horrelako ekintzak izan daitezke Lilara gerturatzeke modu bat". Mikel Etxanizek, esaterako, Musika Eskola aipatu du. "Orain arte emakumeen gaia landu ez arren, ekintza hauek izan daitezke hausnarketarako aitzakia, adibidez, instrumentuen aukeraketan dagoen generoen rola. Beste taldeen iritziak aberasgarriak izan daitezke berdintasunaren gaia lantzeke eta denok honen baitan saretzeko".

Hainbat herritarrek ezogutu dute Lila eta bertatik jakinarazi dute ateak zabalik daudela berdintasunaren edo emakumeen inguruko ekintzetarako talde zein norbanakoentzat.

Emakumearen hilabetea, Elgoibarren

4 BARIKUA

18:30 Argazki erakusketa: 'Mendia emakumetasunetik'. Argazkilaria: Jon Martinez Ibarra. Hilaren 13ra arte, Kultur Etxeko erakusketa gelan.

19:00 Zine foruma: 'Violette'. Lilan.

5 ZAPATUA

10:00 Tailerra: 'Autodefentsa, emakumeentzat'. Olaizaga kiroldegian.

12:30 Kontzertua: Sustrai akordeoi taldea. Herriko Antzokian.

Segidan, Uluka batuka: 'Martxoak 8, egunero da'. Maialako parketik.

14:45 Emakumeen bazkaria. Sigma jatetxean.

8 MARTITZENA

9:30 Emakume migratuen topaketa. Lilan.

11:00 Elkarretaratzea. Kalegoen plazan.

17:00 eta **17:30** Ipuin kontalaria: 'Uretako ipuinak'. Eneritz Artetxeren eskutik, Udal Liburutegian.

19:30 Elkarretaratzea. Kalegoen plazan. Uluka batukak emango dio hasiera, manifestua irakurriko dute, emakumeen argazkiekin murala osatuko dute.

Segidan, manifestazioa, 'Emakumearen ahalduntzearekin, aurrera egin elkarrekin', lelopean.

9 EGUAZTENA

17:30 Jardunaldia: 'Feminismoa: Elkar zain dezagun'. Aita Agirreko Areto Nagusian.

21:30 Filma: 'Hive (Colmena)'. Herriko Antzokian.

10 EGUENA

19:00 Mahaingurua: 'Mendia emakumetasunetik'. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

11 BARIKUA

19:00 Kontzertua: Maite Larburu. Herriko Antzokian.

18 BARIKUA

19:00 Antzerkia: 'Yo, la peor del mundo'. Herriko Antzokian.

20 DOMEKA

10:00 Dantza tailerra, emakumeentzat. Lilan.

28 ASTELEHENA

18:00-20:00 Emakumeen hausnarketarako gunea: 'Zoru itsaskorra'. Lilan.

Emakumearen Eguna, Mendaron

4 BARIKUA

Arratsaldean, Pankartak, joku sinbolikoa eta antzerkia, Ludotekan.

11 BARIKUA

Arratsaldean, Emakumea eta zinema eta zientzia. Gaztelekuan.

19:00 Bakarrizketa: *Corazon de campeona*. San Agustinen

12 ZAPATUA

17:00 Berdintasunerako hiztegia eta hizkuntza inklusiboa. Gaztelekuan.

15 MARTITZENA

18:30 Hitzaldi-tailerra: *Lo que no tea han contado*. Udaletxean.

Edizioa ixterakoan oraindik osatu gabe zegoen martxoaren 8aren harira antolatutako egitarau guztia.



Giro ez izan: Gauzak gaizki, oker edo gogor datozenean erabiltzen da batez ere.
Hori jartzen bada alkate, eztok giro izango baztarretan!

211.777 euroko dirulaguntza emango die Udalak ikastetxeei aurtengo ikasturterako



Elgoibarko Udalak 211.777 euroko dirulaguntza emango die herriko ikastetxeei *Bizitzarako prestakuntza euskaraz* programaren baitan, 2021/2022 ikasturtean hainbat proiektu eta egitasmo finantzatzeko. Joan den ikasturtean baino 54.000 euro gehiago dira. Dirulaguntza hori Udaleko Hezkuntza, Gizarte Ongizate, Euskara, Berdintasun, Sustapen Ekonomiko eta Enplegua eta Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapenerako sailek bideratu dute, befiere, eskolekin adostutako hitzarmenak garatzeko eta sail hauen helburuekin bat datozen ekintzak abian jartzeko. Honela banatu dute dirua: Herri Eskola (30.985,32 euro), Institutua (33.879,87 euro), Ikastola (59.014,88 euro), Meka (14.028,26 euro), IMH (71.981,77 euro) eta EPA (1.886,90 euro).

Udaberriko oporraldian izena emateko epea martxoaren 14an amaituko da

Atxutxiamaiak eta Udal Ludotekak udaberriko oporraldirako aisialdi eskaintzan izena emateko epea zabaldu dute gaur, eta hilaren 14ra arte egongo da izena emateko aukera. 5 urtetik 12 urtera arteko umeentzako eskaintza prestatu dute: HH5etik LH3ra arteko umeentzako egun erdi eta egun osoko irteerak antolatu dituzte, eta LH4tik LH6ra artekoentzako, berriz, Lasturko aterpetxean egonaldia. Eskaintzari buruzko informazio guztia Elgoibarko Izarran (943 741 746 / atxutxiamaiak@elgoibarkoizarra.eus) edo Udal Ludotekan (943 748 883 / 656 740 793 / ludotekaelgoibar@gmail.com). Udalak dirulaguntzak emango ditu, eta horri buruzko informazioa Gazteria Sailean eskuratu daiteke (gazteria@elgoibar.eus / 943 741 050). Ludotekan edo Elgoibarko Izarran eman daiteke izena aurrez aurre, eta online, www.elgoibarkoizarra.eus webgunean.

Bestalde, HH2tik HH4rako umeentzako goiz txokoak antolatu ditu Atxutxiamaiak, Udalarekin lankidetzan. Bi txanda egongo dira aukeran, apirilaren 11tik 13ra lehenengoa eta 19tik 22ra bigarrena. Lehenengo txandak 36 euroko prezioa dauka (bazkideek, 33 euro), bigarrenak 48 eurokoa (bazkideek, 43 euro), eta biak hartzen dituztenek 76 euro (bazkideek 68 euro) ordaindu beharko dituzte. Ordutegia 9:00etatik 13:00etara izango da. Informazio gehiagorako 943 7417 46 telefonora deitu daiteke. Izena emateko www.elgoibarkoizarra.eus webgunean sartu behar da.

Zumarragako musika banda zuzenduko du Iñigo Cearsolok domekan

2020an hasi zuen Iñigo Cearsolok Zumarragako musika bandako zuzendari izateko prozesua, eta domeka honetan egingo du azken proba. Zumarragako musika bandak kontzertua emango du Zelai Arizti aretoan 13:00etan eta berak zuzenduko du. Lau hautagai daude bandako zuzendari postua betetzeko. Laugarren hautagaiak bere kontzertua zuzentzen duenean, musikariek eurek aukeratu dute zuzendari berria, bozketa bidez.

Zinema ordutegi berria, barikuetan

Elgoibarko Udaleko Kultura Sailak barikuetako zinema emanaldiaren ordutegia aldatzea erabaki du, beraz, aurrerantzean, 19:00etan izango dira filmak, barikuetan.

Eulali Morenoren saioa, eskola-umeentzat

Erreminta Makinaren Museoa ipuin kontaketa saioak antolatu ditu Martxoaren 8aren harira, Herri Eskola eta Ikastolarekin elkarlanean, eta Udalaren laguntzaz. LH1 eta LH2ko umeentzako saioak izan dira, eta guztira 227 ikaslek hartu dute parte. Eulali Moreno elgoibartarrak *Printzesa ausarta* ipuina kaleratu du, eta horixe kontatu die umei. Baloreetan oinarritutako ipuina da, eta besteak beste, emakume eta gizonezkoen arteko berdintasuna lantzen du. Astelehenean izango da azken saioa.



Julen Zabaleta 'Yulen' marrazkilari elgoibartarra hil da 101 urte zituela

Julen Zabaleta Barrenetxea 'Yulen' marrazkilaria hil zen otsailaren 26an 101 urte zituela. Bere marrazkiak gure artean utzita. Euskal Herriko lekuko egin gaitu, baita bere esku finez aritzen zen gizon langilearen irudia ere.

Txikitatik izan da marrazketa zalea. Sei urte zituela oparitu zion aitak lehen arkatza eta ordutik ez zuen egunik pasa marraztu gabe. Zaletasuna ikasgai bihurtu zitzaion, izan ere, Aita Agirreko Herri Eskolan egin zituen Lanbide Heziketa ikasketak eta Bernardo Ezenarro izan zuen irakasle marrazketa artistiko zein linealean. Ikasle izatetik irakasle izatera pasa zen, Arte eta Lanbide eskola hartan bertan marrazketaren lehen oinarriak irakasten aritu baitzen zenbait urtetan, bere trebezia beste ikasleei helaraziz.

Ikasi ostean, lanera. Hasieran forjan, tornulari, eta gero, delineatzaile eta proiektugile. Marrazketarako abilitadea baliatuz, makinaren marrazki argigarriak eta funtzionamenduen krokisak zein katalogo eta jarraibide liburuak egin zituen.

Ondareen lekuko

Lanerako baliatu zuen bai, baina bere denborapasa ere izan da marrazketa. Xehetasuna izan da Julenen lanei errealdismoa eman dien ezaugarria eta marra zehatzak eginez 7.000 laminatik gora marraztu zituen, bereziki, herrietako eraikin ezagun eta esanguratsuak. Izan ere, Euskal Herrian barrena ibili zen hainbat txokotako argazkiak ateratzen eta apunteak hartzen, gero eraikin horiek bere eskutik marrazteko. Fabrika eta aintzinako lanbideak ere irudikatu zituen.

Ondare historiko artistikoa erakutsi digu bere lanekin, gehienetan bere kabuz, inork eskatu gabe. Baina jende zein erakunde askorentzat ere egin izan du lan, beti prest egon baitzen bere ilustrazioak behar izan zituztenentzat egiteko. Makina bat liburu ilustratu zituen eta bere



lanak dohaintzan eman. Marrazkigintzarekiko leial ezezik, herritarrekiko eskuza-bala izan zen. Ikertzaile, museo, erakunde... asko zorretan daude, beraz, Julen Zabaletarekin. Elgoibarren bertan herriko historia liburu asko jantzi dituzte Julen Zabaletaren marrazkiek.

Eraikinak izan ziren bere lanetan nabarmenenak kopuruz bai behintzat, han eta hemengo ermitak gehien. Baina erretratuak eta karikaturak ere egin izan zituen bere ibilbide luzean. Esaterako, Auñamendi argitalpenerako bertsolari eta idazlearen erretratuak eta Danobateko bulego teknikoko bere lankideen karikaturak.

Horietako batzuk, *Yulen, 100 urte* liburuan jaso ditu Elgoibarko Udalak. Liburuak izandako arrakasta dela-eta, Elgoibarko Udalak 200 ale gehiago kaleratu ditu. Eskuragai daude doan, Aita Agirre Kulturgunean.

Eraikinen zorroztasunak gordetzen duen historia, lumaz egindako erretratuetan jasotako pertsonaien irudikapen fina zein karikaturekin eragindako irribarreak. Ezaugarri horiek jasotzen dituzte Julen Zabaletaren marrazkiek. Jaso eta jende ar-

tean zabaldu, herrian eta inguruan batik bat, baina beste hainbat tokitan ere ikusgai izan dira.

Gure Balioak

Bere marrazkiak izan dira Julenen erakusleho, baina marrazkilari on baten irudia ezezik Zabaletaren beste hainbat ezaugarri eta balio ere nabarmendu behar dira. Horren adierazle da Debabarrenako Garapen Ekonomikorako Agentziak 2018an eman zion Gure Balioak saria. Orduan bere langiletasuna, bizipoza, umore ona, leialtasuna, diziplina, ordena, eskuzabaltasuna, adiskidetasuna eta egindako lanarekin zuen poza nabarmendu zituzten.

Agur esan du Julen Zabaletak, 101 urteko bide luzea arkatz, luma eta pinturaz kostantziatzen marraztu ondoren, bere esanetan hori baitzen marrazten ondo jarduteko beharrezko zena; konstantzia. Ondo ikasi eta jardun ostean, bere marrazkiek eragindako interesa zein irribarreak utziko ditu marraztuta, bere lanak urteetan ikusi izan dituzten gehien aurpegieta.



Eskubaloi finalen maratoia, Olaizaga Kiroldegian

Orio, Irun, Etxebarri, Errenteria, Donostia, Eibar, Zarautz, Baskari eta Elgoibarko eskubaloi taldeak eta zaleak batu ziren, joan den zapatuan, Olaizaga kiroldegiko kantxan eta harmailetan. Aipaturiko herrietako taldeek Euskadiko Eskubaloi Federazioak antolatutako Open Cup Euskadi txapelketako finalak jokatu zituzten, bata bestearen atzetik, goizean hasi eta ilundu arte. Kadete, jubenil eta senior mailako sei final jokatzekoak ziren, baina bertan behera gelditu zen aurrenekoa, Errenteriako Ereintza eta Zarautz taldeek jokatu behar zuten jubenil mutilen norgehiagoka. Hainbat jokalarik koronabirusarekin kutsatuta zeudela-eta ezin izan zuten finala jokatu. Sanloko ordezkari bat ere bazegoen finaletan, kadete nesken Salento Gelati taldea, hain zuzen. Elgoibartarrek Etxebarriko Kukulaga taldea izan zuten aurkari finalean, eta bizkaitarrak gailendu ziren, 30-24 irabazita. Galdu arren, finalera iritsi izanaz harro dardela esan dute Salento Gelatiko arduradunek.

Euskadiko Eskubaloi Federazioak txalotu eta eskertu egin du Sanloko final hauek Elgoibarren jokatu ahal izateko eginiko antolakuntza lanagatik. Era berean, parte hartzaileak eta finalak ikustera hurbildu ziren zaleei ere eskerrak eman dizkie federazioak, eta aurtengo Open Cup txapelketa "izugarrizko arrakasta" izan dela adierazi du. Sanloko zuzendaritzatik jakinarazi dute lan handia izan den arren, oraingoan ere talde guztietako gurasoen laguntzari esker antolatu ahal izan dutela era honetako eskubaloi jardunaldi bat.



Garaipen garrantzitsua eskuratu zuen Gaurve eskubaloi taldeak Bilbon



Hiru partida errenkadan galdu ostean, garaipen garrantzitsua ekarri zuen Gaurve Ase-sores taldeak Bilbotik. Elgoibartarrek 20 eta 22 irabazi zioten San Adrian taldeari otsailaren 26an jokaturako neurketan. Gaurvek sailkapeneko aurreneko postuetan dauden taldeen aurka jokatu zuen aurreko jardunaldietan. Hiru partida jarraian galdu zituzten arren, multzoko talde onenen aurka jokatu zutela azaldu du Lorea Gabilondok, eta taldeak erakutsi zuen joko ona azpimarratu du. "Guretzako partida garrantzitsuak orain etorriko dira, ligako azken txanpan sartuta gaude-eta", esan du. Asteburu honetan atsedean hartzeko aukera izango dute, ez baitute partidarik jokatu. Martxoaren 12an itzuliko dira lehiara, Olaizaga kiroldegian El Pendo Camargo kantabriako taldearen aurka jokatu duten partidaren. Gaurve 9. postuan dago, 14 punturekin eta 12. postuan dago El Pendo, 10 punturekin. Gogoratu, 14 taldek osatzen dutela Gaurveren multzoa, eta bakararra jaitsiko dela mailaz.

Joseba Etxeberria da SmartBank Ligako Mirandes taldeko entrenatzailea

Burgosko Mirandes futbol taldeak entrenatzaile kargutik kendu zuen Lolo Escobar, eta Joseba Etxeberriari eman zion kargua eta taldea denboraldi amaierara arte zuzentzeko ardura. Etxeberria joan den otsailaren 14an hasi zen lanean talde berrian eta etxetik kanpo jokatu zuten lehen partidaren aurka. Joan den asteburuan, baina, garaipena lortu zuten Etxeberria entrenatzaile dela, etxean jokatu zuten aurreneko partidaren. Anduva futbol zelaiaren jokatu zuten lehen Mailara igotzeko faboritotako bat den Teneriferi. Etxeberriak SmartBank Ligan entrenatu duen beste taldearen aurka lortu zuten garaipena; 2017-2018 denboraldian izan baitzen Etxeberria Tenerifeko entrenatzailea. Mirandes sailkapeneko 17. postuan dago, 33 punturekin. Jaitsiera postuetan dauden Real Sociedad B, Amorebietak eta Fuenlabradak 26 puntu dituzte eta 14 puntu sailkapeneko zuloan dagoen Alcorcon taldeak.



Mendi-eski irteera antolatu dute Saint Lary ingurura

Martxoaren 12 eta 13rako mendi eski irteera antolatu dute Pirinioetara, Saint Lary eski estazio ingurura. Morkaiko mendi taldeak antolatu du irteera, Eibarko Klub Deportibo eta Zarauzko Pagoeta mendi elkartearekin batera. Oraindik ez dituzte zehaztu egingo dituzten ibilbideak, elurraren egoera eta eguraldiaren arabera erabakiko baitute aurrerago. Aurreratu dezaketena da, irteerak "zailtasun erdikoak" izango direla. "Gutxi gorabehera 1200 metro inguruko desnibel positiboa eginez egun bakoitzean". Bakoitzak bere ARVA, pala, sonda, kranpoiak eta pioleta eraman beharko ditu, eta ezinbestean mendian federatuta (Pirineotako aukerarekin) egon beharko dute parte hartzaileek. Saint Lary herrian egingo dute lo, bertako aterpe edo ostatu batean. Hara autoz joango dira. Irteerarako izenematea martxan da jada online, morkaiko.eus webgunean, eta martxoaren 6ra arte eman daiteke izena. Edozein galdera edo duda argitzeko, idatzi morkaiko@morkaiko.eus-era idazteko eskatu dute antolatzaileek.



Emaizak

FUTBOLA

Haundi 2 – Bergara 1 (Oho. erreg.)
 Lazkao 0 – Elgoibar 1 (1. erreg.)
 Elgoibar 4 – Euskalduna 1 (Oho. jub.)
 Elgoibar 1 – Idiazabal 1 (Jub. 1. maila)
 Aizkorri 3 – Elgoibar 1 (Oho. kad.)
 Elgoibar 1 – Hondarribia 2 (Infantil Txiki)
 Tolosa 2 – Elgoibar 2 (Infantil Gorria)
 Arrasate 2 – Elgoibar 32 (Infantil Txuria)

ESKUBALOIA

Muntarpe 20 – Neurri Elg. 27 (Kad. nesk.)
 Dario Bus 14 – Orio 17 (Inf. nesk.)
 Ereintza 22 – Tecnifuelle 18 (Inf. nesk.)
 Urola 30 – Deuko Izarra Elg. 31 (Jub. mut.)
 Kukullaga 30 – Salento Gelati 32 (Kad. nesk.)
 Zarautz 28 – Pizzeria Salento 22 (Sen. giz.)
 San Adrian 20 – Gaurve Asesores 22 (Sen. emak.)

Agenda

SASKIBALOIA (Olaizagan)

Zapatua, 5
 17:45 Modelos Moldelberri – Zalburdi Debasket

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 5
 10:00 Elgoibar – Martutene (Inf. Gorria)
 12:00 Elgoibar – Touring (Oho. kad.)
 15:30 Elgoibar – Bergara (1. maila kad.)
 17:30 Elgoibar – Touring (1. erreg.)
 Domeka, 6
 16:00 Elgoibar – Lagun Onak (Partehartze aleb.)
 18:00 Elgoibar – Amaikak Bat (Kad. nesk.)

ESKUBALOIA (Olaizaga Kiroldegian)

Zapatua, 5
 10:00 Urkunde – Hondarribia (Kad. mut.)
 11:30 Deuko Izarra – Hondarribia (Jub. mut.)
 13:00 Alcorta F.G. – Legazpi (Senior giz.)
 Domeka, 6
 10:00 Pneumax Elg. – Saieko (Inf. nesk.)
 11:30 Bacalaos Alcorta – Orio (Inf. nesk.)
 13:00 Astigarraga – Aiala Zarautz (Kad. nesk.)
 13:00 Zuazo – Tecnifuelle (Jub. nesk.)

ESKUBALOIA (IMH Kiroldegian)

Zapatua, 5
 11:30 Hotel Txariduna – Ereintza (Inf. mut.)
 16:00 Salento Gelati – Ereintza (Kad. nesk.)
 17:45 CIMDE. – Bidasoa (Jub. nesk.)

LANA.....

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, orduka. Esperientzia daukat. Berehala hasteko prest nago.

☎ 632 415 374

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Zaintza titulua daukat eta esperientzia ere bai. Euskalduna naiz.

☎ 626 490 986

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Titulua daukat.

☎ 631 229 408

Adinekoak edo mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeko prest nago. Gavez ere lan egiteko prest.

☎ 631 070 934

Adinekoak zein umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka, asteburuetan ere bai. Berehala hasteko prest. ☎ 641 425 237

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan.

☎ 631 425 686

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest nago.

☎ 658 273 486

Adinekoak edo mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko prest nago. Ospitalean, gavez edo orduka. Erizain laguntzaile titulua daukat. ☎ 634 692 962

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia. Erizain laguntzaile titulua daukat. ☎ 633 496 455

Haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat.

☎ 653 407 897

Adinekoak zaintzeko prest nago. Egunez, orduka, zein gavez.

☎ 641 322 939

Garbiketa lanak egiteko eta adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia handia.

☎ 643 704 118

Eskaintza

Zerbitzaria behar da, asteburuetan lan egiteko.

☎ 659 539 861

BESTELAKOAK.....



Hilaren 29an Karakateko aparkalekuan ume baten bizikleta kaskoa topatu genuen. ☎ 639 671 419

I. URTEURRENA

Jose Maria Arruti Urbieta

2021eko martxoaren 8an hil zen, 85 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, martxoaren 6an, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldeaz aurretik eskerrak.

Beti izango zaitugu gogoan.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Recursos Humanos



ROSA Ma PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Etxebabeen komunitate batean, oraingo atezain-automatikoa hondatuta dagoenez, bideo-atezain batekin ordezkatzea adostu dute. Merkataritza-lokaletakoek orain arte ordaindu dituzte atezain-automatikoaren mantenu eta konponketak, nahiz eta beraiek ez erabili. Jakin nahi nuke ea erabiltzeko eskubiderik ba ote duten eta hala izatekotan gastuak zeinek ordaindu beharko lituzkeen.

Atezain-automatikoa bideo-atezain batekin aldatzea administrazio kontu bat baino ez da. Ezin da interes orokorreko zerbitzutzat hartu, oraingoa, efizienteago batekin ordezkatzea edo egokitzea da egingo dutena. Hori sarrera kontrolatzeko eta eraikina zaintzeko izango da. Gastuak fondo komunetik ordaindu badira, lokaleko jabeak eskubidea izan behar luke bideo-atezaina erabiltzeko. Baina komunitateak horrela izatea nahi ez badu, lokaleko zatia ordaindu-takotik deskontatu beharko luke eta kopurua erabiltzaileek bakarrik ordainduko luketen fondo gisa gehitu. Horrela, jabe erabiltzaileek bakarrik ordainduko lukete.

Aholkua: Zerbitzua erabiltzeko azpiegitura(kanalizazioa, kableak jartzea...) gastuak komunitateak ordaindu beharko lituzke. Baina teknikoki zerbitzua bideratzea ezinezkoa bada gastuetatik libre geldituko litzateke eta ez luke zerbitzua erabiltzerik izango.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2

4 BARIKUA

10:00-13:00 eta 17:00-20:00

Stock kale azoka. Txankakuak antolatuta, establezimendu atarietan.

16:00 Odol-ateratzeak, Mendaroko Ikastolan. Txanda hartzeko: 747 440 060

22:00 Dokumentala eta solasaldia: 'Deia'. 80ko hamarkadan heroinak Euskal Herrian izan zuen eraginari buruzko ikusentzunezkoa. Aitor Txopitea dokumentalaren egileak eskainiko du hitzaldia. Mendaroko San Agustin kulturgunean.

5 ZAPATUA

10:00-13:00 eta 17:00-20:00

Stock kale azoka. Txankakuak antolatuta, establezimendu atarietan.

16:00 Mus txapelketa. Tantaka tabernan.

7 ASTELEHENA

12:00 Elkarretaratzea. Gaurgeroa pentsiodunen taldeak deituta, Kalegoen plazan.

9 EGUAZTENA

19:30 Master Classa: Joseba Irazoki-ekin, musika ikastaro irekia. Elgoibarko Musikarien Elkarateak antolatuta, Musika Eskolako auditoriumean.

Zinea (Herriko Antzokian)



'Belfast'

4 barikua: 19:00
5 zapatua: 19:00 / 22:15
6 domeka: 19:00
7 astelehena: 21:00

'Buscando a la mágica Doremi'

6 domeka: 16:30

'Hive (Colmena)'

(Ongarri zinekluba)
9 eguaztena: 21:00

ETA, DEBABARRENEAN ZER?

ERMUA: SAGARDO EGUNA MARTXOAK 5, 12:30ETIK AURRERA, ERMUKO PLAZAN

NuShu gazte talde feministak, Gazte Asanbladak eta Ermuko Merkatarien Elkarateak antolatuta, Sagardo Eguna egingo dute bihar, Ermuko plazan. Edalontzia eta pintxoak 6 euroan salduko dituzte. Eguerdian, 14:30 aldera arte egongo da txotx egiteko aukera, eta arratsaldean, 18:30etik aurrera. 22:00etan olinpiadak egingo dituzte, eta ondoren, kontzertuak egongo dira.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK		Egunez: 09:00-22:00		Iluntzean: 20:00-22:00		Larunbatak: 9:00-14:00 (*)	
5 BARIKUA	5 ZAPATUA	6 DOMEKA	7 ASTELEHENA	8 MARTITZENA	9 EGUAZTENA	10 EGUENA	11 BARIKUA
Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea
Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Arriola	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Barrenetxea

* Fernandez:
Herriko enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gabez: 22:00-09:00
Esther Mendinueta Berastegui.
Urkizu pasealekua, 6 (Eibar)
943 820 106



San Lazaroko egoiliarrek jaso dituzte IMHko ikasleek eurentzako diseinatu eta fabrikatu dituzten jolasak

txura batean, zerikusi gutxi dute San Lazaro egoitzak eta IMHk, baina gizarte aurreratu batek bere komunitateaz arduratu behar duela uste dute Makina Erremintaren Institutuko arduradunek, eta babes berezia behar duten bizitzako egoera edo etapan inguruan sentsibilizazio berezi bat izan behar dela. Era berean, adineko pertsonak komunitateari egiten dioten ekarpenean ere jarri nahi dute arreta, ekarpen hori bistaratzuz. "Adinekoen bizipenetatik eta esperientziaz asko daukagu ikasteko, eta, Elgoibar herri industrial izanik, historia industrial horren lekuko zuzenak dira. Gure gazteei ondare horren berri emateko pertsonarik egokienak, alegia". Abiapuntu horretatik, IMHko ikasleek eta San Lazaroko egoiliarrek programa batean parte hartu dute, esperientziak partekatuz eta elkar ezagutzeko. Egitasmo horren barruan, mekanizazio arloko bigarren mailako ikasleek San Lazaro egoitzarako helburu terapeutikoak dituzten jolasak diseinatu eta fabrikatu dituzte. Material plastikoekin egin dituzte bederatzita pieza, fresatzeko makinekin eta tornuekin. Egoiliarrek ikasleek diseinatu eta 3D inprimagailu batekin egindako oinarri bateko hutsuneetan jarri beharko dituzte piezak, psikomotrizitatea hobetzea helburu duen jolasean. Joan den otsailaren 25ean eman zizkieten jolasak San Lazaroko egoiliarrek IMHra eginiko bisitan. Mekanizazioan espezializatutako irakasleen eta ikasleen gidaritzapean, IMHren industria-instalazioak bisitatu zituzten egoiliarrek, eta elkar ezagutzeaz gainera, eurentzako materiala sortzeko prozesu osoa ezagutu zuten. Egoiliarren iritziak eta iradokizunak aintzat hartu ostean, hurrengo ikasturtean jolas horiek hobetzea da ikasleen asmoa. Makina Erremintaren Museoak ere hartu du parte ekimenean, eta hura ere ezagutu zuten. Elkarrekin mokadu bat janean eman zioten amaiera bisitari. San Lazaroko arduradunek "egun zoragarria" izan zela azaldu dute eta eskerrak eman dizkiete IMHri eta museoari horrelako ekimen bat antolatzeagatik.





Sukalde edo jangelarako
mahaia, aulki eta tabureteak.

Aukera guztiak,
zatoz gure katalogoa
ikustera!



Merkealdia!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



BARRENi buruzko inkesta

Inkesta honen bidez, BARREN KOMUNIKABIDEARI buruz
duzun iritzia jakin nahi dugu. Minutu gutxi batzuk baino
ez dituzu behar. Mila esker zure denboragatik!

Inkesta anonimoa da, baina zure profila hobeto ezagutzeko
datu gutxi batzuk eskatuko dizkizugu.

Egon lasai: inkesta honi buruzko zerbait publikatzen badugu,
erantzun multzoak izango dira, ez banan-banakoak.

Sartu barren.eus-en eta
egin klik bannerrean

Zer
iruditzen
zaizu
BARREN?



EXPRESS ESKAINTZAK!

**SAMSUNG
VS15A6031R4/ES
ERRATZ-XURGAGAILUA**

249 €

- 150 W-ko xurgatzea
- Kablerik gabe
- Inverter motor digitala
- Kontrol digitala
- Geruza anitzeko iragazketa



MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA


943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.



ATXUTXIAMAIAKAKO UDABERRIKO OPORRALDIA

HH2 - HH4

*OSASUN EGOERA DELA-ETA,
PROGRAMAZIO HONEK
ALDAKETAK IZAN DITZAKE EDO
BERTAN BEHERA GERATU
DAITEKE

APAPA (HH2)
Soto Txokoak 9:00-13:00

1. txanda: apirilak 11, 12 eta 13

36€/33€ bazkideek

2. txanda: apirilak 19, 20, 21 eta 22

48€/43€ bazkideek

BIAK: 76€/68€ bazkideek

APARIKETAN (HH3 eta HH4)
Txokoak 9:00-13:00

1. txanda: apirilak 11, 12 eta 13

36€/33€ bazkideek

2. txanda: apirilak 19, 20, 21 eta 22

48€/43€ bazkideek

BIAK: 76€/68€ bazkideek

IZEN-EMATEA

Martxoaren 4tik 18ra

www.elgoibarkoizarra.eus-en edo Elgoibarko Izarran

INFORMAZIO GEHIAGO

atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.eus

www.elgoibarkoizarra.eus

943 741 746

